



DONEMILIAGA UDALEKO XXIX. HAURREN MARGO LEHIAKETA. 2026

Parte hartu nahi duten Donemiliagan errolduta dauden umeei zuzenduta dago, 14 urte arteko umeei, hain zuzen ere. Guraso edo tutoretzaren titularraren baimena jaso beharko da, guraso edo tutoretzaren titularrak lehiaketa honetan inskribatzeko beharrezko irismenarekin.

Lanak. -

Aurkezten diren artelanak **originalak** izan beharko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak **lan bakarra** aurkeztu ahal izango du, **gai, teknika eta tamaina librean**, lana berria, originala eta hirugarrenek har ditzaketen eskubiderik gabekoa izan beharko da.

Saritutako koadroak Udalaren jabetzakoak izango dira, eta Donemiliagako Udalaren ondare artistikoaren parte izatera pasako dira. Donemiliagako Udalaren ondare artistikoak obra irabazleen jabetza bereganatuko du, eta obra horien egileak uko egingo dio, berariaz, sari horren kontzeptuan jasotakoaz gerora bestelako konpentsaziorik eskatzeari.

Gainerako obrak Donemiliagako Udaletxean erretiratu ahal izango dira 2026ko abenduaren 29a arte.

Adierazitako baldintzetan saririk jaso ez duten obrak jasotzen ez badira, jabeek Donemiliagako Udalaren alde uko egiten dutela ulertuko da, jabetza intelektualeko eskubideekin eta berezko ondare-eskubideekin, hala nola ustiapen-eskubideekin batera, horiekin lotutako edo antzeko eskubideak barne. Era berean, jaso gabeko obrei buruzko edozein konpentsazio erreklamatzeari uko egingo zaio, Estatuko lurraldean nahiz kanpoan.

Epea. -

Lanak Donemiliagako udaletxean **2026ko urriaren 16a** arte entregatu ahal izango dira. Lanarekin batera, gutunazal batean, abizenak, bizitokia, telefonoa, helbide elektroknoia eta lanaren izena jarri beharko dira.

Sari Banaketa. -

Sari ematea Udalerriko Jaia egiten den egunean, 2026ko azaroaren 14an eguadiako ordu batean, egingo da.



Sariak. -

Donemiliagako Udalak hurrengo sariak banatuko ditu (opari txarteletan):

2 urtetik 4 urte arte	30€
5 urtetik 7 urte arte	30€
8 urtetik 10 urte arte	30€
11 urtetik 14 urte arte	30€

Parte hartu duten lagun guztiek saria jasoko dute.

Oharrak.-

Lehiaketan parte hartzean, parte-hartzaileak bere obra lan original eta indibiduala dela, eta bera dela lanaren jabe bakarra adieraziko du.

Aurkeztutako obrarekin zerikusia duen jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubide bat urratzeari buruz, hirugarrenek aurkeztutako demanda edo erreklamazio orotatik salbuesten du parte-hartzaileak.

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du Donemiliagako Udalari lagatzen zaizkiola aurkeztutako obren erreproduzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketarako eskubideak, Jabetza Intelektualari buruzko legeriaren arabera.

Antolakuntzak beretzat gordeko ditu lehiaketatik eratortzen diren irudi, argitalpen eta erreproduzio eskubide guztiak.

Parte-hartzaileek doan lagako dituzte beren irudiari lotutako eskubideak. Horretarako, Donemiliagako Udalari baimena ematen diote, aldeztu aurretik, ekitaldiaren ondorioz lortzen diren argazkiak erabiltzeko, editatutako promozio-erreportajeetan erabili ahal izan daitezen, online zein off line formatuetan.

Donemiliagako Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketan parte hartzen duten obrek edo materialek lanen erakusketan zein lehiaketa prozesuan jasan dezaketen edozein gorabeheraren erantzukizunik, hala nola, lapurreten, galeren edo narriaduren erantzukizunik.

Erakundeak eskubidea du oinarri hauetan arautu gabeko erabakiak hartzeko, betiere, oinarrien funtsezko edukia aldatzen ez badute.

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5koa, ezarritakoa betez, Donemiliagako Udalak jakinarazten dizu, inprimaki honen bitartez jaso dituen zure datu pertsonalak, Udalak kudeatzen



duen datuak tratatzeko jarduera batean sartuko dituela, xedea administrazio espedienteen izapidetza eta kudeaketa izanik, baita hauetatik eratorritako administrazio jarduerena ere. Ez da aurreikusten hirugarrenei datuak ematea, edukiaren arabera legalki derrigorrezkoa izan baliteke ere. Egokia balitz, zure datuak ikusi, zuzendu edo ezabatzeke eskubidea balia dezakezu, baita bere tratamendua ez baimentzekoa edo mugatzekoa ere , honako helbide honetara joz ; Donemiliagako Udala: Andia 9, 01208 (Araba.), edo honako helbide elektronikora; donemiliaga.harrera@ayto.araba.eus. Bertan informazio gehiagarria eskatu ahal izango duzularik.

Lehiaketa eta oinarriak aldatu, baliogabetu edo beharrezkoak diren neurriak aplikatu ahal izango dira.

Oinarrien Onarpena. -

Sariketari parte hartzeak arau hauek osotasunean onartzea eta kontutari izatea dakar berarekin.